

Hizkuntza politika
aurrera begira

**Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzaren
2006ko
jarduera-txostena**



HIZKUNTZA POLITIKA AURRERA BEGIRA

2006KO JARDUERA-TXOSTENA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Argitaraldia: 2.a, 2007ko martxoa

Ale kopurua: 1.000 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Azala: Antton Olariaga

Diseinua eta maketazioa: Junkal Motxaile

Inprimatzailea: Itxaropena, SA, Araba kalea, 45, 20800 Zarautz

HIZKUNTZA POLITIKA AURRERA BEGIRA

2006KO JARDUERA-TXOSTENA

Kultura sailburua: Miren Azkarate Villar

Hizkuntza Politikarako sailburuordea: Patxi Baztarrika Galparsoro

HABEren zuzendari nagusia: Joseba Erkizia Itoitz

Euskara Sustatzeko zuzendaria: Igone Etxebarria Zamalloa

Euskara Planen zuzendaria: Jokin Azkue Arrastoa

Koordinaziorako zuzendaria: Miren Mateo Aierza

Aholkularia: Lorea Bilbao Ibarra

AURKIBIDEA

HITZAURREAK

Miren Azkarate, Kultura sailburua	9
Patxi Baztarrika, Hizkuntza Politikarako sailburuordea	II

2006KO JARDUNBIDE NAGUSIAK

1. Hizkuntza irizpideak Eusko Jaurlaritzaren jarduera orokorrean	15
2. Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planak	16
3. Herri aginteen arteko koordinazioa hizkuntza politikarako gaietan	18
4. Elebide: hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzua	19
5. LanHitz: lan arloan euskararen erabilera areagotzeko ekimena	20
6. Euskararen erabileraren alde sentiberatze ekimenak	24
7. Gizarte bizitzan euskararen presentzia sustatzeko ekimenak	26
8. Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea	30
9. Ikerketak eta azterlanak	34
10. Euskara hedabideetan	35
11. Euskararen sustapena informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan	37
12. Euskararen corpusa lantzen	39
13. Iparraldeko eta Nafarroako herri erakundeekin lankidetzak	42
14. Euskararen presentzia mugaz gaindi	43
15. Argitalpenak	45
16. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren agerraldi publikoak	46

HITZAURREA

Miren Azkarate
Kultura sailburua

Euskara euskal herritar guztion ondarea da eta guztion beharra du. Euskararen ezagutza eta erabilera gaztelaniarekin batera esparru guztietara zabaltzeak, gure elkarbizitza sendotu eta aberastea dakar.

Hizkuntza indartsuen artean bizi izan da, bizi da, eta biziko da, euskara. Askotan sinestarazi ohi digute hizkuntza batzuk beste batzuk baino hobeak direla. Izan bada, noski, hizkuntza indartsuagorik eta hizkuntza ahulagorik. Baina izan ez da hizkuntza onik eta txarrik, egon ez dago hizkuntza txikirik, ez dago hizkuntza pobrerik, ez dago honetarako edo hartarako balio ez duen hizkuntzarik. Hizkuntzarekin inolako zerikusirik ez duten beste zirkunstantzia sozial, politiko eta kultural batzuk dira hizkuntzen arteko desberdintasunak eragiten dituztenak.

Eta zirkunstantzia horien artean, bistakoa da, gurea bezalako hizkuntza batek, euskarak, gaur dagoen baino indartsuago egotera iristen denean ere, orduan ere –gaur egun bezala– nahitaez beharko dituela herri aginteen bultzada eta hizkuntza politika sustatzaileria. Orduan ere nahitaez beharko duela diru publikoa. Hori guztia ukaezina eta bistakoa da. Baina horren guztiorren ondoan, hori guztia adina edo gehiago, erakutsi beharko dute, beharko dugu, herritarrok, euskararekiko eta euskarazko kulturarekiko atxikimendua, leialtasuna, konpromisoa eta inplikazio pertsonala.

Nolanahi ere, eta ekinbideei dagokienez jarraian datozen xehetasunek berez eta garbi hitz egiten dutenez gero, komenigarria da, atari honetan, Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikaren ezaugarri funtsezkoenak gogoraraztea, hala Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren lana testuinguru egokian kokatu ahal izan dezagun.

Ezaugarri horietan lehena, jakina, adostasunerako asmo sendoa da, eta horrekin batera, lankidetzak, nola herri erakundeen artekoa, hala herri erakundeen eta gizarte eragileen artekoa ere. Garbi dago, legez nahiz logika demokratikoz, herri aginteei dagozkiela hizkuntza politika diseinatu eta zuzentzearen ardura eta erantzukizuna, eta hori bezain garbi dago, Eusko Jaurlaritzaren ustean bederen, funtsezkoa dela gizarte alorreko ekimenen osagarritasuna, langintza hori arrakastatsu gerta dadin.

Adostasun eta lankidetzak horietarako isla nabarmena da Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikaren bigarren ezaugarri nagusia: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren ekinbidea irekia da, kritikarako eta hobetzeko jendaurrean jarria, herritarren, euskara elkarrekin, erakunde sozial eta politikoen eta, oro har, gizartearen proposamen eta iradokizunez eguneratu daitekeena.

HITZAURREA

Patxi Baztarrika
Hizkuntza Politikarako sailburuordea

Urtebete igaro da jendaurrean ezagutzera eman genituenetik Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak legealdi honetan zehar garatzeko asmo dituen lan ildo edo konpromiso nagusiak. Lan ildo eta konpromiso horiek guztiek erronka bati erantzun nahi diote ahalik eta modurik eraginkorrenean: euskararen erabileraren erronkari, hain zuzen ere.

Hortik hona egindako bidea laburra izan da, bai, baina egitasmoz eta ilusioz josia. 2006. urtean abian jarri da ekimen garrantzitsu ugari, eta ate berriak zabaldu dira euskararentzat; hor dira, besteak beste, Elebide –hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzua–, LanHitz –alor sozio-ekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko ekimena–, administrazioetako euskararen erabilera planak sendotzeko egitasmoa, “Ukan elkarbizitzaren birusa” euskarri nagusi izan duen elebitasunaren aldeko sentiberatze kanpaina, euskaltegi pribatu homologatuen sareak jaso duen bultzada ekonomikoa... Dударik gabe esan dezakegu 2006. urtea guztiz emankorra izan dela euskarak eremu eta maila berriak bereganatzeko bide horretan.

Baina urte horretako jardunbidearen ezaugarri behinenak aipatu behar izanez gero, elkarlana eta adostasuna aukeratuko genituzke: administrazioen arteko elkarlana areagotu da, eta horren isla izan da abian jarri diren egitasmo nagusietan herri aginteen inplikazioa eta partehartzea, Herri Aginteen arteko Koordinazio Batzordearen (HAKOBA) bitartez gauzatu dena. Adostasuna izan da, era berean, arlo sozio-ekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko sindikatuekin eta enpresarien elkarteekin sinatu diren akordioen oinarria.

Aurrekontu-akordioaren oinarria ere hori izan da: behera erori da urtetako inkomunikazio eta desadostasunaren harresia. Elkarrizketak, negoziazioak eta akordioak bete dute lehen liskarra eta akordiorik eza nagusi zituen esparru publikoa.

Arrazoi ugariengatik berezia izan bada ere itxi berri dugun urteko ekitaldia, bada, herrigintzaren alor operatiboan, gainerako berezitasunen artean gailentzen den bat: legealdiko lehen aurrekontua onartua gauzatu ahal izan da 2006an, eta horrek, jakina, neurri handi eta zehatzean baldintzatzen ditu gainerako gogoeta eta jardunak.

Esate baterako, 2006ko aurrekontuak, hizkuntza politikarako bideratzen diren diru-baliabideei dagokienez, %23,46ko hazkundea ekarri du (44.982.755 euro, guztira). Urte horretan, beraz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak indar handiagoz eragin ahal izan du bere jardun eremuan, ekimen berriei helduz eta lehenagotik zetozenetan sakonduz. Eta aukera berri horiek gogo argiz eta sendoz baliatu izanaren froga garbia da, hain zuzen, agiri honetan aurkezten dugun jarduera-txostena.

Ildo bertsutik, ez dugu ahaztu behar euskarak bere erabilera gehitzen eta normalizatzen jarraitzeko behar-beharrezkoak dituela euskal gizartearen atxikimendu eta konpromiso aktiboa, eta horretarako ezinbestekoa dela euskararen inguruko adostasun sozial, kultural eta politikoa berrindartzea eta zabaltzea. Euskarak dena du irabazteko konpromisoaren eta adostasunaren bidean, eta, aldiz, galtzeko asko izango luke liskarraren eta enfrentamenduaren dinamiketan.

Eta baieztapen hori egia borobila baldin bada hizkuntza politikaren eremu orokorrean, are borobilagoa da egia hori hizkuntza politika horren funtsezko lan ildo den euskararen erabilera sustatzeko eginahalean. Alor horretan, aurrerapauso sendoak egin ditzakete erakundeek, baliabide ugari jarri ditzakete langintza horretan, eta eginkizun horri lotu gatzaizkio, 2006an ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren lantaldea osatzen dugun guztiok, baina ez dugu ahaztu, haatik, erabileran sendo aurrera egiteko benetan erabakigarriak direnak herritarren jarrera eta jokabidea direla.

Elkarrekiko errespetu eta kritika positiboan oinarritzen den osagarritasun horretan barrena doa, zalantza izpirik ere gabe, euskara elebitasun orekatuaren egoerara daraman bidea.

2006KO JARDUNBIDE NAGUSIAK

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK EUSKO JAURLARITZAREN JARDUERA OROKORREAN

Hizkuntza irizpideak administrazio kontratazioan

Legegintzaldi honetako lehen lan ildo nagusiak zehazten duenez, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzak eta euskal administrazioek, oro har, modu are eraginkorrago baten jarraipena ematea euskararen normalizazioari. Horretarako, hizkuntza politika zehar lerrotzat hartu behar da Eusko Jaurlaritzaren baitan. Zeharkakotasun horren arabera, Jaurlaritzako sail bakoitzak lekua egin behar dio hizkuntza irizpideari, bere ohiko jardura eta egitasmoak diseinatu eta garatzerakoan. Hori mamitzen saiatzen da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, eta bidea urratzeko jardunbidean laguntza eskaintzen die gainerako administrazioei.

Hori horrela, 2006. urtean sailtako hainbat programatan edota ekimenetan hizkuntza irizpidea txertatzeko proposa-

men zehatzak egin ditu Sailburuordetzak: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Enpleguaren Legean, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Lehiakortasun Enpresarial eta Hobekuntza Sozialaren Planean, Euskal *Gobernantza* Publikoari buruzko proposamenean, eta abar.

Hala, bada, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2006ko otsailaren 28ko bilkuran, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta horren erakunde autonomoen eta zuzenbide pribatupeko ente publikoen administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza-baldintzak onartu ditu. Akordioak, batetik, administrazio-baldintza zehatzen agiriaren karatulan berariaz sartu behar den testua finkatzen du, eta, bestetik, kontratu-mota bakoitzerako berariazko klausula administratiboen pleguetan sartu behar den testua zehazten du.

© "Argazki" Agritegia (Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco)-Egilea. Mikel Arrazola



Eusko Jaurlaritzako Gasteizko egoitza nagusia

ADMINISTRATIOETAN EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANAK

2

Eusko Jaurlaritzako sailetako erabilera planak

Hizkuntza politikak Jaurlaritzaren jardunean izan behar duen zeharkakotasuna berretsita, ezinbestekotzat jotzen da sail bakoitzak bere programa nagusietan –bereziki proiektzio sozial handiena dutenetan– euskararen presentzia eta erabilera indartzeko neurriak hartzea.



Eusko Jaurlaritzako sailetako euskara planen aurkezpena

Horrela, 2006an zehar, Eusko Jaurlaritzako sail gehienetan konpromiso gutuna sinatu dute plangintzaldi honetan erabilera planak abian jartzeko. Hilabete hauetan, beraz, proiektuaren 35 aurkezpen egin dira, eta sail bakoitzean euskararen egoera zertan den jakiteko diagnosi kuantitatibo eta kualitatiboari ere ekin zaio. Diagnosi horren emaitzen arabera, mila langile baino gehiagori dagokien planaren helburuak, adierazleak eta ekintzak zehaztu ahal izango dira.

Bestalde, HPSk eta EUDELek “Herri Administrazioetako Erabilera-planei buruzko Jardunaldiak” antolatu zituzten azaroan Bilboko Euskalduna Jauregian. Bertan, 96 erakundetako hizkuntza normalkuntzarako 165 teknikarik hartu zuten parte, euskararen erabilera normalizatze-ko tokian tokiko planen berri emanez.

Halaber, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 1997ko Herri Administrazioetan euskararen normalizazioa arautzen duen Dekretuak xedatutakoaren haritik, eta administrazioek emandako datuak bildurik, euskararen erabilera normalizatze-ko prozesuaren III. plangintza-aldiaren (2003-2007) balorazio-txostena prestatzen hasi da, herri administrazio bakoitzean euskararen erabilera planak zein egoeratan dauden jakiteko. Txosten hori laguntza handikoa izango da laugarren plangintza-aldia (2008-2012) prestatzerako garaian.

Udaletan euskara biziberritzeko planak, EUDELekin lankidetzan

Udaletan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) definitu, diseinatu eta garatzeko asmoz, HPSk eta EUDELek hitzarmena izenpetu dute. Koordinazioa eta aholkularitza modu eraginkorrago batean gauzatzea da lankidetzaren helburu nagusia. EUDELek, hain zuzen ere, Euskara Zerbitzua jarri du abian, udal bakoitzak bere udalerrinari dagokion EBPN formulatu,

onartu eta aurrera eramaten laguntzeko. Euskara Zerbitzu horrek aholkularitza eta laguntza tekniko eta koordinaziorako lanabesak eskainiko dizkie udalei, eta, horrez gain, Jaurilaritzaren eta udalen arteko koordinazioaz ere arduratuko da.

2006an zehar, HPSk ahalegin berezia egin du oraindik EBPN abian ez duten erakundeekin harremanetan jarri eta euskararen erabilera planaren inguruan informatu eta sentsibilizatzeko. Hala, urtean zehar beste zazpi erakundek ere konpromisoa hartu dute beren plana osatu eta abian jartzeko. Horren ondorioz, gaur egun, guztira, 85 erakunde (116 udal, hiru hiriburu eta udalak barne) dira EBPN garatzen ari direnak.

Udal erakundeetan euskara sustatzeko laguntzak

Udal Administrazioetan Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia sustatzeko hainbat laguntza bideratu ditu 2006an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Entitateei (udalak, mankomunitateak...) zuzendu zaie dirulaguntza deialdia, honako laguntza-gaiokin:

1. EBPN onartu eta 2006ko kudeaketa plana gauzatzea.
2. Toki Entitatearen administrazioan hizkuntzaren erabilera normalizatzeko plana prestatzea.
3. EBPN abian jarri nahi duten Toki Entitateentzat, plan estrategikoaren diseinua eta onarpena, eta 2007ko kudeaketa planaren diseinua.
4. Toki Entitateak hizkuntza normalizatzeko gauzatzen dituen ekintzak bideratzea, EBPNrekin lotura bai

baina EBPNko ez plan estrategikoa ezta kudeaketa-planik ere martxan ez daudenean.

Eginkizun horietarako, 2006an 1.600.000 euroko laguntza bideratu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Baliabide horiei esker, 77 udalek beren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatu dute, beste zazpi 2007rako beren EBPN martxan jarri ahal izateko diseinulanak egiteko laguntza jaso dute, eta beste bederatzik udalek, berriz, EBPNren marroan ekintza zehatzak burutzeko laguntza jaso dute.



Herri Administrazioetan euskara planei buruzko jardunaldiak

Beste alde batetik, PINBE planaren bitartez, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak dirulaguntzak eskaini ditu udal euskaltegi-tako irakasleek udaletako euskara planak garatzeko laguntzaile gisa jardun dezaten. Horrela, hainbat euskara irakasle EBPN ezartzeak eragindako ebaluazio-, jarraipen- eta koordinazio-lanetan ari dira. Xede horretarako, 770.000 euroko dirulaguntza eskaini du HPSk, 2005eko urritik 2006ko irailera doan ekitaldirako.

HERRI AGINTEEN ARTEKO KOORDINAZIOA HIZKUNTZA POLITIKARAKO GAJETAN

3

HAKOBaren lan lerroak

Herri Aginteen arteko Koordinaziorako Batzordea (HAKOBA) 1997. urtean eratu zen, hizkuntza politikako gaietan eskumenak dituzten herri aginteen arteko elkarlana areagotzeko asmoz. HAKOBAn, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Ogasun eta Herri Administrazio Saila, hiru foru aldundiak eta hiru hiriburuetako udalak



Herri Aginteen arteko Koordinazio Batzordea

daude ordezkaturak —erakunde bakoitzak ordezkari politiko bat izendatu ohi du—. Gainera epealdi berri honetan, udaletako ordezkariak zabalagoa bermatze aldera, EUDELeK (Euskadiko Udalen Elkarteak) ere ordezkaria du batzordean.

HAKOBA bi aldiz batzartu da 2006an zehar: ekainaren 8an lehen aldiz, eta urriaren 18an bigarren.

Lehenengo bilkuran, erakundeek elkar hartuta landu beharreko gaiak eta proposamenak aztertu ondoren, 2006-2008 bitarteko jarduerarako programaren ildo nagusien inguruko gogoeta egin zuten. Dirulaguntzak eta hizkuntza irizpideak izan zituzten hizpide, eta, HAKOBako erakundeen arteko koordinazioa hobetzearren, batzordekideek komenigarritzat jo zuten aztertzea zein eratako programak eta nolako irizpidez eta mugez laguntzen diren diruz, deialdi publikoen bidez. Bestalde, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko otsailaren 28an onetsirikoa akordioa, EAEko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen eta zuzenbide pribatupeko erakunde publikoen administrazio kontratuak gauzatzekoan bete beharreko hizkuntza irizpideei buruzkoa aurkeztu zen. Halaber, aztergai izan zituzten administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko III. plangintza-aldia eta erakundeen arteko Teknikarien Mahaia.

Era berean, euskarazko hedabideen gaineko gogoetari ekitea erabaki zuen HAKOBak lehendabiziko bilkura hartan, eta horixe izan zen bigarren bilkuraren puntu nagusietako bat, arestian aipatutako gaien jarraipenaz gainera. Bigarren bilkuran, beraz, “Euskara hedabideetan: euskarazko hedabideak eta euskararen presentzia hedabideetan oro har” izeneko dokumentua aztertu zuten batzordekideek.

Ikerketa horrek, “Euskararen presentziaren azterketa nagusiki gaztelania

darabilten hedabideetan” izenekoarekin batera, gogoetarako abiapuntua eskaini zuen. Euskarazko hedabideen eta haien kontsumitzaile potentzialen arteko erlazioa aztertzea da gogoetaren helburua, euskarazko hedabideek orain arte egin duten bideari eta haien gaur egungo eskaintzari kontsumitzailearen ikuspegitik

arreta jarriz, etorkizuneko perspektiban bide berri eta eraginkorrak irekitzeko asmoz, eta gero eta ugariagoa den hedabideen munduan euskararen presentzia behar bestekoa lortu eta sendotze aldera. Kezka-multzo horri erantzuten laguntzeko, hausnarketa idatzia enkargatu die HAKOBAK hainbat adituri.

4 ELEBIDE: HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO ZERBITZUA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak herritarren hizkuntza eskubideak babesteko zerbitzu berria eratu du 2006an: Elebide. Izenak argi adierazten du sorturiko zerbitzuaren asmoa: alde batetik, *elea*, hitza, hizkuntza; bestetik, *bidea*, hizkuntzaren erabileraren inguruan herritarren kexa, kontsulta eta iradokizunei *bidea* irekitzeko asmoa, hain zuzen. Gainera, Elebide izenak elebitasunerako bidea ere iradoki nahi luke, horixe baita hizkuntz normalizaziorako bidea.

Hala, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari legez dagokion eginbehar nagusi bat betetzera dator Elebide: “Eskatzen duten herritarrei beren hizkuntz eskubideak babesteko informazioa eta aholkularitza ematea, eta eragindako erakundeei eskubide horiek benetan bete daitezen elkarlana eskaintzea”.

Ondoren zehazten diren zerbitzuok eskaintzen ditu Elebidek:

- Hizkuntz eskubideak urratu zaizkion herritarren eskaera edo kexak jaso eta aztertzen ditu.
- Hizkuntz eskubideen inguruan zailtzak dituen herritarri argibideak ematen dizkio, indarrean dauden araudiaz eta eskura dituen baliabideen gaineko informazioa eta aholkularitza eskainiz.
- Kexak eragin dituzten entitate, enpresa eta zerbitzuetako arduradunei



egoera horren berri eman eta gainditzeko laguntza eskaintzen die.

- Herri Administrazioako erakunde eta elkarten arteko koordinazioa indartzeko du, erabiltzaileen hizkuntz eskubideak berma daitezkeen.
- Hizkuntz eskubideen babesarekin zerikusirik izan dezaketen proposa-

men eta iradokizun guztiak jaso eta biltzen ditu.

Elebide urriaren 17an aurkeztu zen, telefono zenbaki bat (012) eta web gune bat (www.euskadi.net/elebide) jarriz herritarren zerbitzura. Ordutik, eta urtea amaitu arteko aldian, hizkuntz eskubideei buruzko ehun bat kexa, kontsulta eta iradokizuni eman die erantzuna.

LANHITZ: LAN ARLOAN EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO EKIMENA

5

Lankidetzak-akordioak enpresari eta sindikatuekin

LanHitz, lana eta hitza, euskara eta eguneroko lana uztartu eta indartzeko ekimena jarri du abian 2006ko udazkenean Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Lan munduan euskararen erabilera eta presentzia suspertzeko programa hau mamitzerakoan, hiru foru aldundiekin eta EUDELekin elkarlanean eta Eusko Jaur-laritzako Industria eta Turismo Sailarekin eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailarekin bat eginik aritu da HPS.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren betidaniko helburuetako bat

izan da eragile sozioekonomiko nagusiak –enpresariak elkarteak eta sindikatuak bereziki– esparru honetako hizkuntza politikaren partaide bilakatzea, eta haien lankidetzak eta bermea izanik, aurrera egitea lan munduan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko bidean.

Horrela, ekimenaren garrantziaren adierazgarria da LanHitz aurrera eramateko enpresaburuak elkarte guztiekin (ADEGI, CEBEK, CONFEBASK eta SEA), baitetik, eta sindikatu nagusi guztiekin, (ELA, CCOO, LAB eta UGT), bestetik, hitzarmena sinatu izana, irailaren 6an lehenengoa eta irailaren 21ean bigarrena. Enpresetan euskara bultzatzeko erantzukizuna denek



hartzen dutela bere gain adierazten baitu horrek. Gai horren inguruan adostasun sozial zabala eta borondate sendoa dagoela erakusten du aldi berean.

Erreferentzia Marko Estandarra (EME), eta horretarako lagungarriak eta tresnak

LanHitzek urteetan metatutako esperientzia, tresnak eta baliabideak jartzen ditu, enpresa bakoitzak neurritan egindako plan edo jardura propioak landu, kudeatu eta ebaluatu ditzan. Enpresaren borondatea dago, beti ere, bidearen abiapuntuan, hari baitagokio, funtsean, euskara sustatzeko plan bat martxan jarri nahi duen ala ez erabakitzea, eta, nahi izanez gero, zein helburu, abiadura eta baliabiderek.

Kasuan kasuko hizkuntza helburuak finkatzen laguntzeko, Erreferentzia Marko Estandarra (EME) izeneko taxonomia edo laguntza koadroa osatu da. EMek erakunde edo enpresa estandar baten ohiko jardun eremuak irudikatzen ditu, hizkuntza non eta zertan erabil daitekeen erakutsiz. Horrela, euskara plana egin nahi duten erakundeek argi eta garbi ikus dezakete zein helburu eta eremu landu edo hobetu ditzaketen. EME nork bere beharretara egokitu ondoren, neurritan egindako ekin-tza plana lantzea da helburua.

EME hiru ardatzen arabera dago egituratua:

- Erakundearen irudia eta komunikazioa: errotulazioa, harrera, publizitatea...

- Kanpo harremanak: ahozko edo idatzizko harremanak bezero eta hornitzaileekin, produktua edo zerbitzua...
- Barne harremanak: langileen kudeaketa, laneko prestakuntza...

Dagokien EME osatu eta prozesuarekin aurrera egitea erabakitzen duten enpresentzat, hainbat laguntza tekniko jarri dira abian:



Arlo sozioekonomikoko eragileekin sinatutako hitzarmenen aurkezpena

- Informazio eta aholkularitza zerbitzua: 012 telefono zenbakia eta LanHitz web gunea (www.euskadi.net/lanhitz) zabaldu dira.
- Ohiko agiri, terminologia eta esapi-deak jasotzen dituen banku telematikoa izateko lanak abiatu dira.
- Euskara-planen kudeaketarako, hau da, diagnostikoa, diseinua, jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresna informatikoak diseinatu dira, 2007an eskaintzeko eragileei.

- Euskalduntzeko eta alfabetatzeko moduluak eta trebakuntza saioak, HABEren eskutik.

Sentsibilizazio lana enpresaz enpresa

Euskararen erabilera ahalik eta enpresamultzorik handienera zabaltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko mapa soziolinguistikoaren arabera elebidunen kopurua %45etik gorakoa duten guneetan dauden 15 langile baino gehiagoko enpresengana



Euskalitekin hitzarmenaren sinadura ekitaldia

jotzeko bidea, prozedura eta material berezituak prestatu dira.

Enpresei, banan-banan eta zuzenean, bakoitzaren hizkuntza-egoeraren argazkia egiteaz gain, aholkua ematen zaie, euskara eguneroko lanean txertatzeko planak eta esku hartzeko plangintzak nola osatu erakusteko eta proposatzeko. Era berean, erakunde publikoek eskaintzen dituzten laguntzen eta asmo horretan aurrera egiteko merkatuan dauden

aholkularitza-enpresen berri ere ematen zaio enpresari.

Kopurutara ekarrita, 2006ko urritik abendura bitartean informazio orokorra bidali da 1.800 enpresetara, telefonoz 900 bat enpresarekin harremanetan jarri da, 140 bilera hitzartu da eta 90 bisita egin da. 2007. urtean jarraitu egingo da enpresaz enpresako sentsibilizazio lanarekin.

Enpresa munduan euskara sustatzeko laguntzak

Lan munduan euskararen erabilera aragotzeak duen garrantziaren erakusgarri da 2006an xede horretarako HPSk eskaini duen diru baliabidearen zenbatekoak nabarmen gora egin izanak. Hain zuzen ere, 2006ko deialdi publikorako 1.825.000 euro jarri dira, hots, 2005ean baino %63 gehiago.

Guztira, 2006an euskararen erabilera bultzatzeko plana egin edo garatzeko dirulaguntza jaso duten erakunde pribatuak 120 izan dira.

EUSKALITekin hitzarmena: ebaluazioa eta zertifikazioa

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, legealdiko lan-programan eta enpresari-elkarteekin zein sindikatuarekin sinatutako hitzarmenetan, bere gain hartu du euskara kalitatearekin eta berrikuntzarekin uztartuko duen ziurtagiri ofizial, prestigiozko eta behin betikoa sortzeko konpromisoa.

2006an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Kalitatearen Sustapenerako Euskal Iraskundeak (EUSKALIT) lanki-

detza hitzarmena sinatu dute, enpresetako hizkuntza normalizaziorako prozesuen ebaluazio eskema zehazteko. Elkarlan horren ondorioz, enpresei eta erakundeei, orohar, ebaluaziorako eta zertifikaziorako tresna egokia eskainiko zaie, gaur egun indarrean dauden kalitatea ziurtatzeko sistemetan jasotako irizpide eta parametroetan oinarrituta.

Lan-munduan diharduten teknikarientzako prestakuntza

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ASMOZ Fundazioarekin hitzartutako akordioari esker, abian da lan munduan diharduten teknikarientzako prestakuntza Interneten, LINGUANET ikastaroaren bitartez.

LINGUANET ikastaroak lan munduko euskara planen inguruko oinarritzko ezagutza teorikoa eta eguneroko praktiken esperientziak ezagutzeko aukera eskaintzen du. Ikastaro berezitu honen hartzaile nagusi dira esparru sozioekonomikoko erakundeetan edota enpresetan diharduten teknikariak zein koordinatzaileak, baita alor horretan aritzeko prestakuntza berezia behar duten pertsonak ere, eta, era berean, erakunde publikoetatik lan munduan euskararen presentzia areagotzeko lanean ari direnak.

Makina Erreminta Institutuarekin lankidetzak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Makina Erreminta Institutuak (IMHK) lankidetzak-protokoloa sinatu dute 2006.



Makina Erreminta Institutuan Mintegia

urtean alor sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotzeko.

Protokoloaren helburu nagusia bi erakunde hauen ekintzen arteko osagarritasuna lantzea da, alor sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotzeari begira, hots, HPSk abian jarritako LanHitz programa eta IMHK martxan duen Goazen ekimena elkarren osagarri gertatzea. Horretarako hainbat lan garatu dira elkarlanean:

- 2006ko urriaren 26ko 30+10 Mintegia. Makina-Erremintaren hornitzaile, fabrikatzaile eta erabiltzaileen erantzukizun soziala eta euskara. Baliabideak eta praktika onak.
- Mintegi horretarako ponentziak eta artikuluak Internet bidez zabaltzea.
- Goazen egitasmoaren baitan landutako glosategi terminologikoak eta bestelako terminologia-lanak normalizatu eta zabaltzea

EUSKARAREN ERABILERAREN ALDE SENTIBERATZE EKIMENAK

6


Ukan birusa: elebitasuna eta elkarbizitza lotu dituen sentiberatze kanpaina

Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikaren ardatz nagusietariko bat izan da beti elebitasun orekatuaren eta elkarbizitzaren arteko lotura estua, ez baita inolaz ere onartzekoa alde bateko nahiz besteko elebakartasun isolatzailearen aldeko apustua. Oinarri horrekin, HPSk komunikazio

estrategia iraunkor bat diseinatzeari ekin dio 2006an, funtsezko mezu hori gizar-tean –eta bereziki sektore elebakarren artean– zabaltzeko asmoz.

Estrategia iraunkor horren abiaburu gisa, sentiberatze kanpaina gauzatu da 2006ko azaroaren 8tik abenduaren 3ra, elebitasunaren aldeko mezu nagusi bat ardatz hartuta (elebitasunak elkarbizitza hobetzen du), jasotzaile-multzo nagusiak elebakarrak eta euskaldun berriak izanik. Kanpainaren logotiporako, hain zuzen ere, Ukan izenez plazaratu den “elkarbizitzaren birusa” aukeratu zen, “Contáciate, para convivir mejor” goiburu nagusiaren bideratzaile gisa. Aipatu logotipoa (Ukan birusa, alegia), bestalde, era iraunkor batean gizarteratzea zen kanpainaren beste helburuetariko bat. Izan ere, euskal herritar elebakarren multzoa elebitasunera erakartzeak etengabeko eginkizuntzat hartzen du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.

Ukan elkarbizitzaren birusaren inguruan antolaturiko sentiberatze kanpainak euskaldun berriaren irudiari eman dio gune-guneko tokia, partaideak eta komunikatzaileak hautatzerakoan, huraxe baita, azken batean, Ukan birusak elebitasun eta elkarbizitzaren alde luzatzen duen mezua erarik egokienean gorpuzten duena.



Euskararen Nazioarteko Eguna

Donostiako Kursaal Jauregian abenduaren 3an ospaturiko ekitaldiak Ukan elkarbizitzaren birusaren inguruko kanpainari itxiera eman zion 2006koan. Izan ere, ospakizun soiletik haratago, ekitaldi osoan zehar txertatu zen elebitasun orekatuaren aldeko mezua eta euskaldun berrienganako onespina.

Gala baten itxura hartu zuen ekitaldiak (ETB2-k emana), eta lehen mailako partaidetza izan zuen: Ion Maya dantzaria; Karra Elejalde antzezlea; Maria Berasarte kantaria; Patxo Telleria eta Mikel Martínez antzezleak; Donostiako Orfeoia; Afrika Bimbang eta Julio Ibarra (aurkezleak).

Emanaldiez gain, eguneko ospakizuna eta sentiberatze kanpainaren mezua uztartuz, mundu zabaleko Euskal Etxee-

tatik eta Kultura Sailarekin “Euskara eta euskal kultura” programa hitzartua duten unibertsitateetatik igorritako irudi bidezko mezuak ikusi ahal izan ziren, Ukan birusaren goiburua gorapatuz.

Era berean, kanpoko nahiz barneko euskaldun berrien eta euskaltegien ekarria onesteko asmoz emaniko 2006ko Ukan sariak banatu zituen lehendakariak, ekitaldia ixtearekin batera: Mari Jose Martín Barakaldoko euskaldun berria (Euskal Herriko euskaldun berri guztien ordezkari gisa); Paola Bella eta Lucía Méndez Montevideoko euskaldun berriak (Euskal Herriko kanpoko euskaldun berri guztien ordezkari gisa). Sari horiez gain, euskaltegien sarea osatzen duten ikastegi guztiei 2006ko Ukan diploma bana eman zitzaion (Rufino Iraola irakasleak jaso zuen, euskaltegi guztien izenean, onspen agiria).

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak*
*euskararen aurrerabidea eta, beraz,
euskal gizartearen elkarbizitza sendotzeko eginahala
aitortzen dio*

EUSKALTEGIEN SAREARI

Donostia, 2006ko abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean

 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAIA
Ministerio de Política Lingüística

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Visorconsejería de Política Lingüística

Kultura sailburua

Hizkuntza Politikarako sailburuordea

GIZARTE BIZITZAN EUSKARAREN PRESENTZIA SUSTATZEKO EKIMENAK

7

Gizarte bizitzan diharduten erakunde pribatuentzako euskara sustatzeko laguntzak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren lan ildo nagusien artean dago gizarte-ekimeneko organismoak indartzea eta beren ekarria bideratzea, beti ere herri aginteek diseinaturiko hizkuntza politikaren osagarri gisa. Izan ere, hizkuntza politika diseinatu eta garatzea herri agintearen ardura bada ere, gizarte-ekimeneko organismoen ekarria funtsezkoa da herritarrek hizkuntzarekiko duten atxikimendua sendotzeko.

Horrela, bada, gizarte bizitzan (berezi aisialdian, kiroletan eta harreman ez formaletan) euskararen erabilera sustatzeko egitasmoak taiutzen dituzten erakunde pribatuentzako dirulaguntzak gora egin du 2006an: aurreko urtean baino %25 gehiago erabili da helburu horretarako; guztira, 1.190.000 euro.

Deialdiaren asmoa honako arloak jorratzea izan da: aisialdian euskararen erabilera areagotu eta sendotzeko egitasmoak (jostailuak, jokoak eta denborapasa); hizkuntza gaitasuna eta hizkuntza trebetasuna sendotzeko egitasmoak; euskararen familia bidezko transmisioa sendotzeko egitasmoak; euskaraz irakurri eta idazteko zaletasuna areagotzeko eta trebetasuna lantzeko egitasmoak; omenaldi eta gertakari berezien ospakizunak; euskararen ondareari buruzko informazioa jaso, gorde edota digitalizatu eta hedatzea helburu duten egitasmoak; erdal mundua euskarara hurbiltzea eta beroriei euskaraz sortu eta burututako jardunaren berri ematea.

Euskalgintzan diharduten eta euskararen normalizazioa eta sustapena helburu dituzten elkarteei zuzendutako baliabide hauen bidez, 208 egitasmo lagundu dira 2006an orotara.

Euskararen transmisioa familia bidez

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, HABEK eta Buruntzaldeko sei udalek (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil), euskararen familia bidezko transmisioa indartzeko programa pilotua jarri dute martxan.

Programa, "Etxean zer ikusi, hura ikasi. Zeuk duzu giltza" goiburuz, bi eta



© "Argazki" Agiritegia (Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco) ~ Egilea: Mikel Arrazola


hiru urteko haurrak dituzten gurasoei zuzentzen zaie, gidaliburu eta aholku liburuxken bidez bikoteen hizkuntza ohituretan eragina izateko asmoz. Euskara familia bidez transmititzeak duen garrantzia gizarteratzea eta guraso euskaldunak sentiberatzea du helburu nagusi.

Programa honen bidez propio sortu dira honako materialak:

- *Aholku liburuxkak* hizkuntza-gaitasunaren araberako guraso tipologia bakoitzari egokitutako aholkuak/mezuak jasotzen ditu.
- *Gurasoentzako liburuxka* guraso euskaldunei zuzendutako materiala da, eta emozioen ekologiaren haritik jorratua da. Psikopedagogiaren eskutik, hizkuntza ohiturak aldatzea eta euskararen erabilera sendotzea eta areagotzea ditu helburu.

ONCEekin hitzarmena

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, ikusmen urriko euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatze aldera, hitzarmena sinatu du Espainiako Itsuen Elkarte Nazionalarekin (ONCE), euskarazko literatur lanak pertsona horien beharretara egokitzeko asmotan. Hala, ONCEk euskarazko hirurogeita hamabost literatur lan moldatuko ditu braille sistemara eta Daisy sistemara. Horrez gain, ONCEk berak argitaratzen duen *Haizea* soinudun aldizkari elebidunaren bi zenbaki ekoiztuko ditu. Gaur egun, ONCEk soinu bidezko euskarazko 207 liburu ditu eta 42, berriz, brailez idatzita.



Kirol Campusak euskaraz



Gaztetxoei kirola, aisialdia eta euskara batera gozatzeko aukera emateko asmoz, *Kirol Campusak euskaraz* egitasmoa eratu da, eta lehenbiziko saioak 2006ko abenduaren 26 eta 27an egin dira. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde bakoitzean kirol campus bana ospatu zen, lurralde bakoitzeko erreferentziako kirol talde baten eskutik. Hala, Araban Tau Cerámica Baskonia taldearekin batera gaztetxoak saskibaloian aritu ziren Gasteizen; Bizkaian, Euskaltel-Euskadi taldeari esker, txirrindularitzan saiatu zi-

ren Derion; Gipuzkoan, berriz, Bidasoa taldearen eskutik eskubaloia landu zuten Irunen. Guztira, 8 eta 11 urte bitarteko 210 neska-mutiko aritu ziren kirolean eta jolasean euskaraz.

Hitzarmenak Euskal Idazleen Elkarte, Bertsozaleen Elkarte eta Labayru Ikastegiarekin

Urtero egin ohi duen bezala, 2006an ere Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak lankidetzak akordioak sinatu ditu euskalgintzan diharduten zenbait elkarterekin, beren lan programak aurrera eramateko dirulaguntzak bideratuz:

- Euskal Idazleen Elkartearekin (EIE), euskal literatura ezagutarazteko programak garatzeko eta azpiegitura sendotzeko.
- Euskal Herriko Bertsozaleen Elkartearekin, elkartearen barne eta kanpo jarduna finkatu eta egonkortzeko asmoz, eta bertsolaritza Euskal Herrian nahiz atzerrian ezagutzera emateko. Urteko jardueretan sartzen dira transmisioa ziurtatzeko ekimenak eta bertsolaritzari lotutako ikerketa-bideak lantzea.
- Labayru Ikastegiarekin, bizkaieraren normalizazioa lortzeko lanetan aurrera egiteko. Lan-lerroak hauek dira: lexikografia, bizkaiera literarioaren normalizaziorako urratsak, ahozko ondarearen artxiboa, Bizkaiko leku-izen eta deituren corpusa osatzea, Euskal Biblioteka eta argitalpenak.



Literatura Unibertsala bilduma osatzen

Era berean, HPSk hitzarmena berretsi du Euskal Itzultzaile, Interprete eta Zuzentzaileen Elkartearekin (EIZIE), Literatura Unibertsala itzulpen-bilduma osatzen jarraitzeko. Bildumako lau ale argitaratu dira: Jules Renard: *Axenario*; Leonid Nikolaievitx Andreiev: *Zazpi urkatuak*; Nagib Mahfuz: *Mirarien kalezuloa*; Yasunari Kawabata: *Loti ederrak*; Itziar Otegi, Jose Moralesek, Patxi Zubizarretak eta Ibon Uribarrik itzuliak hurrenez hurren.

Urteroko moduan hurrengo lanak nork itzuliko dituen esleitzeko lehiaketa

egin da beste sei liburu hurrengo urteetan itzuli eta argitaratzeko.

Bestalde, 2006an Pío Barojaren heriotzaren 50. urteurrena bete dela eta, Eusko Jaurlaritzak omenaldia egin dio idazle donostiarrari Literatura Unibertsala bilduman, eta egitasmo horren osagarri berezi gisa, Barojaren bi liburu argitaratu ditu: *Zalakain abenturazalea*, Koro Navarra euskaratua, eta *Jakintzaren arbola*, Josu Zabaletak itzulia. Liburuok Alberdania eta Elkar argitaletxeek, baterako argitalpenez, plazaratu dituzte, bi argitaletxe horiei esleitu baitzitzaien bere garaian Literatura Unibertsala bildumaren bigarren multzoko aleak (101-150 bitartekoak) argitaratzeko lana.

Mintzalaguna ekimena Topagunearekin elkarlanean

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Topaguneak Mintzalaguna ekimena sendotu eta hedatzeko hitzarmena sinatu dute 2006an. Lankidetzaren honen helburua, ingurune egokia ez izateagatik euskaraz aritzeko zailtasunak dituztenentzat (hiri handietan bizi direnak, gehienetan) euskaraz mintzakide izango dituztenak topatzea da, ikasitakoa praktikan jarri eta euskaraz bizi daitezen.

Topaguneak 1997an eratu zenetik, bere egitekoen artean lehentasunezkoa du

mintzapraktika zabaltzeko helburuari erantzuna ematea. Gaur egun, EAEn (Mintzalaguna, Berbalaguna), Nafarroan (Mintzakide) eta Ipar Euskal Herrian ere antolatzen da, era askotako erakundeen laguntzari esker: euskara elkarteak, euskaltegiak eta ikastetxeak. HPSk dinamizatzaile horietako asko bere baitan biltzen dituen Topagunearekin dihardu elkarlanean.

Topagunearekiko hitzarmen honen bidez, HPSk egitasmoa leku gehiagotara hedatu nahi du, lehendik ari direnak sendotzeaz gainera. Horrekin batera beharrezkoa ikusten da metodologia sortzea, egungo egoeraren azterketa egitea, hurrengo urteetarako lehentasunak zehaztea, gizarteko talde berezientzako dinamika egokitzea eta balorazioa egin ahal izateko neurgailuak zehaztea.

Hiznet: Hizkuntza Plangintza Ikastaroa

Azken urteotan egin den bezala, 2006an ere Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Asmoz Fundazioarekin hitzarmena sinatu du Hiznet ikastaroa eskaintzeko. Ikastaroaren jasotzaileak dira, besteak beste, euskara teknikariak (Administrazioan, hezkuntza sisteman eta antzeko lan arlotan ari direnak), hizkuntza normalkuntzan erantzukizun publikoa dutenak eta euskalgintzan edo euskararen inguruan dihardutenak.

HELDUEN EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA

8

Euskaltegi sareak

Helduen euskalduntze-alfabetatzea sustatzeko 2006an egindako urratsen artean, azpimarratzekoa da euskaltegi pribatu homologatuen sareak jaso duen bultzada



Bitariko Batzardearen aurkezpena

ekonomikoa, urteko dirulaguntzen zenbatekoa 15.000.000 eurotik ia 20.000.000 eurora igo baita.

Gehikuntza nabari honetan oinarrituta, HABEren eta sareko ordezkarien arteko Bitariko Batzardeak hiru urterako finantzaketa irizpideak adostu ditu; sistema hitzartuaren bidetik, sareak egonkortasunean irabazi du, eta kalitatea areagotzeko hainbat arlo lantzea ziurtatu da:

irakasleen prestakuntza, teknologia berriak, kudeaketa eta ikasmaterialgintza.

Orobat, udal euskaltegien sarea ere sendotze aldera, Kultura Sailak eta EUDELEk Bitariko Batzardea osatu dute. Euskaltegien egoera aztertzen eta aurrera begirako hobekuntzak lantzen ari da batzarde hori.

Bestalde, sektorearen eraginkortasuna hobetzeko asmoz, gogoeta iraunkorrari ekin diote HABEK eta euskaltegi publiko zein pribatuen sareek hainbat gaietan: autoikaskuntza sistemak eta sistema mistoak, formazio planak... Azken puntu honi dagokionez, aipagarria da 2005/6 ikasturtean HABEK 44 formazio saio antolatu dituela, euskaltegietako irakasleei zuzenduta; guztira, 1.200 lagunetik gora izan dira partaide.

Ikasleentzako laguntzak

Euskal Autonomia Erkidegoko euskaltegietan, guztira, 39.000 ikasle aritu dira 2005/6 ikasturtean zehar.

Euskaltegietako ikasleentzako dirulaguntzen kopurua 950.000 eurora igo zen 2006an. Emaitza akademikoari loturik ematen diren dirulaguntza hauen bitartez, HABEren kurrikuluko mailaren bat egiaztatzen duten ikasleek, muga bateraino, beren matrikula kostuak leuntzeko edo berreskuratzeko aukera izaten dute. Guztira, 2.000 ikasletik gora dira laguntza eskuratu dutenak.

Oinarrizko Kurrikuluaren laugarren maila

2000n onartu zen Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluak lau mailatan banatu zuen helduen euskalduntze-prozesua. Hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboan oinarrituz, maila bakoitzerako helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazio irizpideak ezartzea du xede kurrikuluak. Orduan, baina, laugarren mailarako edukiak eta ebaluazio irizpideak garatzeke utzi ziren. Orain, berriz, Oinarrizko Kurrikulua burutzerara datorren 4. maila arautu du Kultura Sailak.

Maila honek euskara tekniko eta zientifikoaren eskakizunak beteko ditu; alegia, gaitu egingo du ikaslea teknika eta zientziaren eremuetan euskaraz aritzeko. Hortaz, maila jasoko nahiz xeheko testuak eta mintzamoldeak arazorik gabe ulertzeko trebatuko du eta hizkuntz maila formal eta informalak iaioki menderatzeko prestatuko du ikaslea. Azken batean, gaitasun komunikatibo orokorra eta gaitasun espezifikokoak lantzea du helburu.

Heldu euskaldunen mota askotako eskariei erantzun nahi die laugarren maila honek: EGA maila (3. maila) hobetu nahi dutenei; beren lanagatik-edo, euskaraz gaitasun handiagoa behar dutenei –kazetari, irakasle eta, oro har, langile espezialduei...–; Administrazio 4. hizkuntza eskakizuna lortu nahi dutenei...

2005-2006 ikasturtean, bost eskalategi aritu dira 4. maila ematen, saio moduan.

AISA programa: etorkinentzako harrera ikastaroak

Etorkinak euskarara hurbiltzeko AISA ikastaroak antolatu ditu HABEK Inmigrazio Zuzendaritzarekin, udalekin eta eskalategiekin elkarlanean. AISA programa duela bi urte jarri zen abian, azken urteotan Euskadira iritsi diren etorkinei harrera ikastaroak antolatzearen. Europar Batasunaz kanpoko etorkinak euskal gizartea hobeto ezagutzen laguntzea du helburu, bertan integra daitezen eta euskara ikasten lehen urratsak eman ditzaten.

aisa
harrera-ikastaroak 2007

¡Anímate a aprender Euskera!

Take a chance and learn Euskara!

N'hésitez plus, apprenez l'euskara!

تشجع لتعلم اللغة الباسكية !!

✱X ✱.0N.0✱ ✱.0✱E.A✱✱ ✱:0R✱0✱!

来学习巴斯克语吧!

ETORKINAK EUSKARA IKASTEN

HABEk diseinatu eta argitara eman dituen etorkinen kolektiboari zuzendutako ikasmaterial bereziak erabiltzen dira ikas-taroetan, AISA ikasmaterialak, hain zuzen. Euskara ikasteko oinarri-oinarrizko materiala da, eta Afrika, Latinoamerika, Asia eta Europako ekialdetik etorritako lagunengan pentsatuz garatu da.

2006an 27 ikastaro eskaini dira, eta guztira 353 ikasle etorkinek parte hartu dute.

OSATUZ programa

Osakidetzak eta HABEk sinatutako hitzarmen zabalaren bitartez, OSATUZ programa jarri da abian 2006an. Programa honen helburua osasun alorreko profesional eta langileei hizkuntz trebakuntza eskaintzea da. Irratsaioen bitartez, hileroko aldizkariaren bidez eta berariazko web guneak baliatuz, osasunaren alorreko egoera arruntetan euskaraz komunikatzeko gaitasuna lantzen da OSATUZ programan.



IKASBIL eta LINGUANET web guneak

2006ko hasieran, IKASBIL web ataria zabaldu zuen HABEk. Ikasmaterialez eta euskara ikasleentzako era guztietako dokumentu interesgarriz hornitua dagoen web atarian, etengabe eskaintzen eta berritzen dira baliabideak eta edukiak, maila guztietako ikasleek beren neurrirako bitartekoak eskura ditzaten. Une honetan, 8.000 ikasmaterialetik gora dago atarian (idatziak, entzungaiak, bideoak, ariketak, sekuentziak...), denak irizpide didaktikoz katalogatuak (euskara maila, helburu didaktikoa...), eta *on line* egiteko moduan jarriak ikasle nahiz irakasleen esku, doan beti ere. Egunero-egunero mila pertona baino gehiagok bisitatzen eta erabiltzen du web gunea, euskarako ikasleen erreferentziatzako gune bihurtu baita.

Era berean, LINGUANET web gunea osatu du HABEk, Europako Batzordeak bultzatutako programa batean 19



herrialdetako beste hainbat erakunde-ekin lankidetzan. Atari honetara bildu dira hizkuntzak ikasteko *on line* eskura daitezkeen metodo, material, argitalpen eta era guztietako baliabideak. HABEren partaidetzari esker, euskaraz ikasteko *on line* baliabideen berri jasotzen da web gunean, eta nabigatu ere euskaraz egin daiteke orrian barrena.

EUSKARA MUNDUAN programa

Euskara Munduan programari jarraipena emanez, 19 Euskal Etxe eta 3 federazio-ekin hitzarmenak sinatu ditu HABEK (guztira 70 Euskal Etxe biltzen ditu hitzarmenak). Hitzarmenon bitartez, euskarazko eskolak eskaintzen dira Euskal Etxeetan. HABEK laguntza ekonomikoa, ikasmaterialak, irakasleen formazioa eta aholkularitza didaktikoa eskaintzen die Euskal Etxeei. Guztira, 2.000 bat ikasle heldu ari dira euskara ikasten programa honi esker. Zehatzago esatearren, aurten 1.500 euskara ikasle inguru daude Amerikan (horien erdia, Argentinan), eta 700 inguru Europako Euskal Etxeetan (gehienak Bartzelona eta Madrilan: 200na ikasle). Ipar Amerikan dauden 60 Euskal Etxeen erdian ematen dira euskarazko klaseak.

HABEREN ZENBAIT ARGITALPEN

Xede talde jakinei zuzendutako ikasmaterialetan, *Dendaketan* izeneko eskuliburua argitaratu du HABEK. Liburu honetan, bereziki dendariei eta dendako langileei euskara irakasteko 60 orduko ikastaroa



eskaintzen da, hain zuzen ere erosleak dendara joaten direnean sortzen diren oinarizko komunikazio ereduak lantzeko.

Ostalaritza alorreko enplegatu eta langileentzako *Ostalaritza* liburua argitaratu da, 30 ikastunitate dituena.

Euskararen familia bidezko transmisioa bultzatzeko programa piloturako, *Etxean zer ikusi, hura ikasi* eta *Euskara ere eman. Zeuk duzu giltza* gurasoentzako liburuak argitaratu ditu HABEK.

HABE aldizkari didaktikoaren 11 ale argitaratu dira, eta *Osatuz* aldizkariaren lehenengo 4 aleak.

Hizpide gogoeta aldizkariaren hiru ale eman dira argitara: 61, 62 eta 63. aleak.

Itzulpen Saila bilduman liburu bat eman da argitara: *Talde-dinamika hizkuntza ikasgelan*.

EAS, Euskal Herriko Hizkuntz Adierazleen Sistema osatzen

Euskal Herriko Hizkuntza Adierazleen Sistema (EAS) tresna baliotsua da euskararen egoerari buruzko informazio zehatza eskuratzeko eta euskarak Euskal Herrian duen bilakaeraren berri emateko. EASek ahalik eta informazio eguneratuena bildu eta eskaini nahi die aginte publikoei zein euskararen erabileraren normalizazio prozesuan diharduten eragile, erakunde pribatu eta herritar guztiei.

Jardunbide horretan, 2006an Euskal Herriko Hizkuntza Adierazleen Sistema eguneratzeko eta osatzeko 31 adierazle berri definitu dira. Horretarako, aipatzekoak dira Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHUrekin) eta Jakinkizunak SL enpresarekin sinatutako hitzarmenen ondorioz jaso diren datuak, eta HABEren lankidetzari esker lortu ahal izan direnak. Unibertsitate mailako irakaskuntzan euskararen egoera hobeto ezagutzen lagunduko duten adierazleak zehaztea eta eguneratzea da EHUrekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenaren helburua. Eta euskarazko liburugintzaren bilakaeraz eta egoeraz behar bezala jabetzea Jakinkizunak SL enpresarekin sinatzearena.

Hizkuntza-adierazleen sistema osatze aldera, 2005-2008 Plan Estatistikoan aurreikusitako bi operazio estatistikoren proiektu teknikoak idatzi eta onartu dira. Lehenak euskalduntze-alfabetatzearen egoe-

ra eta bilakaera zehatz-mehatz ezagutzeko aukera emango digu. Bigarrenaren bidez, berriz, euskararen azpiegitura publiko eta pribatuen zentsua egingo da eta, aldi berean, EAS osatzeko adierazleak finkatu dira.

Euskal Autonomia Elkarteko hizkuntza-paisaiaren azterketa

2006an, EAEko arlo publikoan eta pribatuan hizkuntza-paisaia aztertzeko ikerketa garatu da. Egoera horren diagnostikoa osatu nahian, euskararen erabilera –idatzia nahiz ahozkoa– aztertu da eremu itxi eta irekietan, publiko zein pribatuetan. Arlo publikoan, toki, foru, erki-dego eta estatu administrazioak aztertu dira, eta emaitzak udalerrira emango dira. Arlo pribatuan, berriz, zerbitzu sektorea aztertu da.

UNESCO Etxearekin hitzarmena, elebitasuna eta eleaniztasuna ikertzeko

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hiru urteko hitzarmena (2006-2008) sinatu du UNESCO Etxearekin, elebitasuna eta eleaniztasunari buruz gure artean jendeak dituen iritziak biltzeko. Ikerketak bi zati nagusi izango ditu: lehenengoan, euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak modu kualitatiboan aztertuko dira; biga-

rreanean, aldiz, azterketa kuantitatiboa egingo da, euskaldundu ez diren pertsonen euskararekiko jarrera zein den ezagutzeko.

Helburua euskarari buruzko aurreiritzi eta jarreraren diagnosia egitea izanik, metodologiaren aldetik zeharkako metodo kualitatiboen bitartez egingo da lana, taldekako eztabaidaren bitartez. Emaizak transkribatu, aztertu eta sailkatu ondoren, kodifikatu egingo dira. Ondoren etorriko da azterketa kuantitatiboa jarreraren dimentsioa ezagutu eta joerak zein diren identifikatzeko.

Ikerketa hau egiteko, aurretik Euskal Herrian eta nazioartean egin diren azterketa partzialak kontuan hartu dira, aha-

lik eta ikuspegi konparatu osoena aintzat hartuz.

IV. Inkesta Soziolinguistikoa

1991tik hona, eta bost urtetik behin, euskararen egoera eta bilakaera neurtzeko inkesta egiten da euskararen lurralde osoan. Aztertzen den unibertsoa 16 urte edo gehiago duten biztanleena da, eta euskararen ezagutza neurtzeaz gain, erabilera eta euskara sustatzeari buruzko jarrera ere aztertzen da. 2006an, Euskal Herriko IV. Inkesta soziolinguistikoaren definizioa, proiektu teknikoa eta landa-lanak egin dira (Euskal Autonomia Erki-degoan, Nafarroan eta Iparraldean).

10 EUSKARA HEDABIDEETAN

Euskarazko komunikabideei buruzko azterlana

HAKOBAREN ekimenen berri ematean adierazi bezala, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskarazko hedabideei buruz eginiko azterketa izan du aztergai eta gogoetagai 2006an.

Ikerlan horretan, EAeko 16 urte edo gehiagoko euskaldunek eta ia euskaldunek osatu dute unibertsoa. 4.000 inkesta egin dira guztira, eskualdeka banatuta, telefono bidez. Euskarazko hedabide kontsideratu da euskara hutsean edota ia osorik euskaraz kaleratzen den idatzizko, entzunezko, ikus-entzunezko eta Internet

bidezko hedabidea. Azterketaren bidez jorrratu da euskarazko hedabideak zenbatek kontsumitzen dituen eta horien oinarriko ezaugarriak zein diren.

Hedabideetan euskara sustatzeko laguntzak

Hedabideetan euskararen erabilera sustatu eta sendotzeko baliabideak, hala nola euskarazko hedabideak garatu eta indartzekoak, handitu egin dira 2006an. Dirulaguntza horiek prentsa idatzi, irrati, telebista eta Internet bidezko agerkeriei zuzendu zaizkie. Zehatzago esatearren, euskara hutsean egiten den eguneroko

prentsa eta euskara hutsean egiten diren aldizkari eta gehigarrietara bideratu dira. Irrati eta telebistei dagokienez, osorik nahiz zati batean euskara hutsez ari direnak hartu dira kontuan. Eta Interneten eremuan, euskara hutsezko agerkariak eta albisteak euskaraz eskaintzen dituzten albiste-agentziak.

Guztira, 4.750.000 euroko laguntzak banatu dira 2006an arlo honetan. Telebistetarako 500.000 euro, eta gainerakoetarako 4.250.000 euro. Honek esan nahi du ohiko hedabideen deialdiak %11,8ko igoera izan duela, telebistak alde batera utzita. Garrantzizkoa izan da, halaber, tokian tokiko telebistei emandako bultzada, ahalegin sendoa egin baita hedabide horietan euskarak presentzia duina izan dezan.

Berrikuntzen artean, azpimarratzekoa da aldizkariaren atalean laguntza lerro berria ireki dela gaztelania nagusi duten egunkarietako gehigarrientzat. Euskararen sustapena ez da euskara hutsezko hedabideetara mugatu nahi: hobe, hedabide

guztietan bere tokia izango balu. Horretarako, gaztelania nagusi duten egunkariak bultzatu nahi izan dira euskara hutsezko gehigarriak sortu eta egunkarietan txertatzera. Gutxienez 16 orrikoak izatea eta astean behin argitaratzea urtean zehar dira baldintzak.

Hedabideetan euskara sustatzeko laguntza horien bidez 101 egitasmo lagundu dira 2006an.

Rikardo Arregi Sariak

Andoaingo Udalak antolatuta, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntzaz, hemezortzigarrena izan da 2006ko Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren deialdia. Sariok euskaraz egiten den kalitatezko kazetaritzaren erreferentzia eta eredu dira honezkero.

2006ko irabazleak, Ekaitz Agirre (Kazetari Gaztea Saria), Elhuyar (Epaimahaiaren Sari berezia) eta Imanol Murua Uria (Sari Nagusia) izan dira. Ohorezko aipamena, berriz, Pello Zabalentzat izan da.



Rikardo Arregi Sariaren aurkezpena

EUSKARAREN SUSTAPENA INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA BERRIETAN

Teknologia berrietan euskara sustatzeko laguntzak

Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (IKT) euskarazko baliabideak eta aplikazio berriak garatzeko, hala nola Interneten euskararen presentzia areagotzeko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskaini dituen dirulaguntzek nabarmen gora egin dute 2006an: aurreko urtean baino %66,7 gehiago. Guztira, 1.000.000 euro zuzendu zaizkie teknologia hauetan euskararen erabilera areagotzeko lanean diharduten erakunde pribatuei. Euskarazko atari eta web guneak sortu edo hobetzea, hizkuntzen teknologietan euskara integrazteko egitasmoak garatzea eta softwarea euskaraz osatzea dira dirulaguntza hauen helburuak.

Guztira, 91 egitasmo lagundu dira, 2006an, teknologia berrietan euskararen sustapenarekin zerikusia duten ekimeneztarako bideratu den deialdi honen bitartez.

ADITU programa

Ahotsaren teknologiek informazioaren gizartearen garapenerako duten garrantziaz jabetuta, ADITU programa jarri zuen abian Eusko Jurlaritzak, ahotsa ezagutzeko (ASR) eta sintetizatze (TTS) motoreak euskaraz ere garatzeko eta merkaturatzeko hitzarmena, Belgikako Nuance enpresarekin 2003an sinatu ondoren.

Ahozko teknologien bidez bi prozesu burutu daitezke: batetik ahotsa testu

bihurtzea, ezagutzaren motorren bidez, eta, bestetik, testua ahots bihurtzea, sintesi motorren bidez.

ADITU programaren barruan jardunaldi teknikoak egin zen Bilbon 2006ko ekainean. Programari lotuta antolatutako bigarren jardunaldiaren (lehenengoa 2005ean egin zen Donostian) helburua haxe izan zen: ahotsaren teknologietan euskaraz garatutako sintesiaren eta eza-



gutzaren motoreen gaineko xehetasunak ematea, ADITU egitasmoaren barruan burututako ekimenen berri ematea eta hainbat esperientzia aurkeztea. Partehartzaileen artean teknologia horien garatzaileak, administrazioetako ordezkariak eta teknologia horien bestelako balizko bezeroak izan ziren.

ADITU programari esker enpresetan eta erakundeetan teknologia horiek erabilia garatu daitezkeen aplikazioen gaineko informazioa ADITUren web gunearen bitartez ezagutarazi da (www.euskara.euskadi.net/aditu).

Euskara lantzeko tresnak

Eusko Jaurlaritzaren web orrian euskarazko baliabideak daude edonorentzat erabilgarri. 2006an, lehendik zeudenez gainera, Ibon Sarasolaren *Hautalenerako Euskal Hiztegia* kontsultagai jarri da on line. Horrekin batera, beste hiztegiak eguneratzeko eta osatzeko saioa egin da, hala nola, *3000 Hiztegia*, *Elhuyar Hiztegia*, *Morris Hiztegia* eta *Sinonimoen Hiztegia*.

Baliabideon artean EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoak dauka corpusik handiena, eta hori ere eguneratu, osotu eta ugaritu egin da.

Halaber, LanHitz programaren barruan, lan-munduan eta esparru sozioekonomikoan erabiltzeko honako tresna hauek sortu dira, 2007an eskuragarri izango direnak:

- Agiri-ereduen banku telematikoa: bertan, esparru sozio-ekonomiko pribatuan (industria zein zerbitzugintza) ohikoak diren euskarazko agiriak eta agiri elebidunak eskura jartzen dira, azalpen eta adibide praktikoz horniturik.

Agiri-ereduok hiru ardatz nagusitan sailkatuta egongo dira: a) erakundearen irudia / hizkuntza paisaia, b) kanpo harremana, c) barne harremana.

Ereduen txantiloak eta horien erakusgarri diren adibideak ordenagailura deskargatzeko, betetzeko, moldatzeko eta inprimatzeko moduan egongo dira.

- *On egin!* aplikazioa: aplikazio telematiko honek ostalaritza esparruko kartak eta menuak hiru hizkuntza-

tan osatzea ahalbidetuko du: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez; batean zein bestean edo hiruretan aldi berean.

Euskarazko softwarea lantzen

Eusko Jaurlaritzaren www.euskara.euskadi.net web orriak euskarazko softwarea deskargatzeko aukera eguneratua ere eskaintzen du. Bertan dira, esaterako, *Xuxen* zuzentzaile ortografikoaren bertsio ezberdinak, eta baita bestelako software produktuak ere: plugin-ak, software libreko produktuak testuak euskaraz digitalizatzeko (OCR), kudeaketako softwarea...

2006an gune horretan bi produktu gehiago txertatu dira: *Xuxen* zuzentzaile ortografikoaren kode irekiko bertsioa, eta euskarazko hitz-zatikatzailea (Hyphenator), Quark softwarean integratzen dena, euskarazko edizio-lanetan lerro bate-tik bestera hitz bat zatitu behar denean, modu automatikoan egiteko.

Softwarearen lokalizazioa dela eta, OpenOffice.org bulegotika-paketearen bigarren bertsioaren lokalizazioa egin da. Bertan *Xuxen* kode irekiko zuzentzailea txertatu da.

Euskarazko atari eta web guneak

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza etengabe ari da www.euskara.euskadi.net ataria edukiz, zerbitzuz eta albistez hornitzen. Bertan aurki daitezke, besteak beste, *Euskararen Berripapera* pdf bidez, Bidegileak bilduma pdf-tan, *Hizkunea* soziolinguistikako aldizkari elektronikoa, literaturako argitalpenak (Klasikoak, Literatura Unibertsala) EUSKALTERM Terminologia

Banku Publikoa, EAEko toponimia datu-basea, LanHitz eta Elebide zerbitzuen web orriak, eta abar.

IKTen inbentarioa

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) inbentarioa esparru horretan euskaraz edo euskararako egindako edo egiteko bidean diren ekimenen diagnostikoa eta mapa da. Hau da, IKTetan euskararen presentzia areagotzeko informazio kualifikatua eskuratzeko tresna, gero Euskararen Adierazleen Sistemaren bitartez ezagutarazteko.

Lan horrek bidea emango dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari orain arte egindakoaren indarguneak eta ahuleziak antzeman eta aurrera begirako lehentasunak definitzeko. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren plan estrategikoein bat letozkeen proiektuak eta ekimenak identifikatu ahal izango dira, beti ere bali erantsia eta eraginkortasuna kontuan hartuta.

Inbentarioa Interneten bidez kontsultatuko da eta agenteek dagozkien fitxak eguneratzeko eta fitxa berriak bidaltzeko aukera izango dute 2007an.

12 EUSKARAREN CORPUSA LANTZEN

Euskaltzaindiarekin hitzarmena

Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek Euskaltzaindiarekin daukaten lankidetzahitzarmenaren barruan, urterako egitasmoak finkatu eta landu dira, erakunde horrek euskararen corpusa estandarizatzeko, modernizatzeko eta normaltzeko lanak aurrera eraman ditzan.

Arabako toponimiaren berrikuspina osatua

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 1986an ekin zion, Bizkaiko toponimia datu-base batean jasoz, EAEko toponimia bilketari. Geroago, 1991n, datu-base hori Gipuzkoako eta Arabako toponimiako

bilketa-lanekin osatu zuen. Harrezkero, etengabe aritu da toponimia alorreko datu-basea eguneratzen eta zuzentzen. 2003an, esaterako, Bizkaiko toponimia berraztertu zuen, izen normalizatuak finkatzeko eta 1:5.000 eskalako kartografian txertatzeko. Lan horretan erabilitako irizpideak eta arauak Euskaltzaindiarekin batera finkatu ziren, eta Arabako lana egin ondoren, EAEko toponimiako datu-basean txertatu da 2006an. Hala, Arabaren kasuan, 1991n egindako Arabako toponimia lana berraztertu zuen Deustuko Unibertsitateko Deiker Institutuak, 30.000tik gora toponimo berrikusiz, Gasteizko hirikoak barne. Lan horretarako, honako urratsok eman ziren:

- Iturri dokumentalen hustuketa: arakatu dira, besteak beste, katastroa, iturri kartografikoak, artxibate-



Toponimia jardunaldiak

giak eta argitalpen berezituak; hau da, informazio idatzi baliagarria biltzen duten dokumentuak.

- Toponimoen normalizazioa: leku izen bakoitzari buruzko informazioa aztertu eta banan-banan izen normalizatua zein izango den erabaki da, beti ere Euskaltzaindiaren onespenez.
- Toponimoak kartografian txertatzeko irizpideak: izena generikoarekin (Oria ibaia) edo generikorik gabe (Oria), euskarazkoa eta erdarazkoa bat ez datozenean nola jokatu (Gorobel mendilerroa / Sierra Sálvada), entitateen izen ez ofizialak mapetan jaso ala ez, eta abar.

Gipuzkoako toponimiaren berrikuspena abian

Arabako toponimiaren berrikuspena burutu ondoren, 2006ko abenduan Gipuzkoakoa berraztertzeari ekin zaio, horrekin batera landu beharreko hizkuntza

normalizazioan eta normalizazio geografikoan aurrera egiteko eta, ondoren, lan horien emaitza 1:5.000 eskalako kartografian txertatu ahal izateko. Gipuzkoako lan honen ardatza bat etorriko da Bizkaiko eta Arabako lanen ildo nagusiekin, aurreko horietan aplikatutako arautegia hartuko baita oinarritzat. Arabako berrikusketa lanean bezala, oraingoan ere ez da landa-lanik egingo.

Toponimia normalizatzeko lan guzti horien ondorio da gaur egun Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak duen toponimiako datu-basea. Bertan jasotzen dira azken 20 urteotan egindako lanen emaitzak. Datu-basea kontsultagai dago Eusko Jaurlaritzaren web gune instituzionalean: www.euskadi.net/euskara_toponimia.

Toponimia Jardunaldia

Euskal Herriko Toponimia eta Kartografiari buruzko Jardunaldia antolatu du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2006ko abenduan, Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzan, Gasteizen. Bikoitza izan zen 80 bat lagun bildu dituen Jardunaldi honen helburua: batetik, toponimiaren erabiltzaileei (administrazio publikoei, kartografia enpresei...) Euskal Autonomia Erkidegoan, azken 20 urteotan, toponimiaren eta kartografiaren inguruan egindako lanen berri ematea; bestetik, horren osagarri lirartekeen Nafarroako eta Iparraldeko toponimiaren ikuspegi zehatza eskaintzea. Izan ere, komunitate horietako toponimoek antzeko normalizazio irizpideak behar dituzte eta, hori dela eta, batzuen eta besteen toponimia jarduna hobetzeko eta koordinatzeko lagungarria izan da Jardunaldia.

IPARRALDEKO ETA NAFARROAKO HERRI ERAKUNDEKIN LANKIDETZA

13

Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoarekin elkarlana

2003. urtean Eusko Jaurlaritzak eta Ipar Euskal Herriko Obragintza Publikoko partaide ziren ordezkariak sinatutako protokoloak ate berriak ireki zizkion Iparraldeko eta Hegoaldeko erakunde publikoen arteko lankidetzari. Izan ere, hizkuntza politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzaren instituzionalerako oinarri sendoak jartzeaz gain, herri erakundeen arteko lan harreman normalizatu eta iraunkorrak ekarri ditu.



Elkarlan horren ondorioz 2006. urtean Eusko Jaurlaritzako eta Euskararen Erakunde Publikoko ordezkariak akordio berria eraikitzeko borondatea eta konpromisoa berretsi dute, eta akordio berria sinatzeko bidea egin da.

Akordioa sinatu bitartean eta Baionako Protokoloaren izpirituari jarraiki, beste zenbait lan garatu dira elkarlanean 2006. urtean. Horrela, adibidez, Euskal Herriko IV. Inkesta Soziolinguistikorako landa-lana egin da Ipar Euskal Herrian.

Iparraldean eta Nafarroan euskara sustatzeko laguntzak

2006. urtean ere Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak aurreko urteotan izan den finantzazio-bideari eutsi dio. Horrela, euskararen eremu geografikoan EAetik kanpo euskararen erabilera sustatzeko ekimenak garatzen dituzten erakunde pribatuentzat dirulaguntzak emateko 400.000 euroko deialdia kaleratu du aurreko urtean ere Eusko Jaurlaritzak.

Zehazki, honako laguntza-gaiak sustatu dira:

- Euskararen transmisioari eta hiztunen sortzeari begira: sentiberatzea; euskarazko materialgintza ziurtatzea; euskalduntze-alfabetatzean diharduten eragileen etengabeko prestakuntza eta baliabideak bideratzea.
- Euskararen erabilera sustatzeari begira: aisialdian eta eskolaz kanpoko ekintzetan nagusiki.
- Euskararen elikadura sendotzeari begira: euskaraz diharduten komu-



nikabideak sustatzea; informazio eta komunikazioaren teknologia berrietan euskararen erabilera bultzatzea; hizkuntza ondarea eta toponimia berreskuratzea eta normaltzea.

- Euskararen bilakaera soziolinguistikoaren ezagutzan sakontzeko ikerketa-lerroak.

Guztira, 36 egitasmo lagundu dira 2006ko deialdian, Iparralde eta Nafarroan euskararen erabilera sustatzeko.

Nafarroako Euskara Kultur Elkargoarekin hitzarmena

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Nafarroako Euskara Kultur Elkargoak

(EKEk) hitzarmena adostu dute 2006an, honako jarduerok gauzatzeko:

- Nafarroako mundu euskaltzale proprotik at euskarari buruz dagoen ikuspena ikertu eta euskarari buruz Nafarroan dagoen iritzi eta sentipenaren diagnostikoa egiteko hausnarketa mahaiak eratzeko.
- Euskara eta Nafarroari buruzko SA-REA agiritegia elikatzeke eta web gunearen bitartez eskaintzeko.
- Nafarroan euskal hiztunen eskubiak defendatzeko sortu zen Arte-kariaren lanari jarraipena emateko.
- Euskarari buruzko informazioa zabaltzeko Nafarroan.

14 EUSKARAREN PRESENTZIA MUGAZ GAINDI

Euskara Europar Batasunean

2005eko ekainean, Europar Batasuneko Kontseiluak, europar erakundeei hainbat hizkuntza –euskara barne– erabiltzeko aukera eman zien, honako hiru eremuotan bederen:

- Europar Legebiltzarrak eta Kontseiluak elkarrekin erabakitako xedapenetan.
- Ahozko parte hartzeak Kontseiluen saioetan eta, hala dagokionean, Europar Batasuneko beste zenbait erakunde eta organotan.
- Herritarren idatzizko komunikazioetan Batasuneko erakunde eta organoekin.

Eusko Jaurlearitzak aukera hau aprobetxatzea beharrezkoa dela iritzita

hainbat neurri bideratu du. Horrela Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak, elkarlanean, herritarren eskura jarri diren bide berriak aurkeztu zituzten 2006ko ekainaren 14an:

- Europako Batasunean euskarak duen egoerari buruzko informazioa biltzen duen web gunea (http://www.euskadi.net/euskara_ue).
- Europako erakundeetara euskaraz bidali nahi diren komunikazioak bideratzeko e-posta helbide bat: euskadi-ue@ej-gv.es

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko Itzulpen Zerbitzu Ofiziala esparru honetan egin behar diren itzulpenez arduratuko da.



Expolingua Berlinen

Irakurle programak munduan zehar

Irakurle programaren helburua euskal hizkuntzaren eta kulturaren ezagutza bultzatzea da Euskal Herritik kanpoko unibertsitateetan zein goi mailako beste irakaskuntza-zentro batzuetan. Programa horren bidez, horretarako interesa adierazten duten unibertsitatei beren ikasketa planetan euskara eta euskal kulturako ikasketak txertatzeko edo sendotzeko dirulaguntza eskaintzen zaie; era berean, aholkularitza eta material zein baliabide didaktikoak ere eskueran jartzen zaizkie. Irakurle programa osatzen duten atzerriko unibertsitateak hamahiru dira oraingoz, eta Txilen, Uruguayn, Argentinan, Mexikon, Alemanian, Finlandian, Polonian, Italian eta Espainian (Valentziako unibertsitatea) daude.

Hizkuntza-azokak: Expolangues eta Expolingua

Expolangues azokaren 24. edizioa izan zen Parisen, 2006ko urtarrilaren 18tik 21era bitartean. Azken urteetako goiburua

bera hartuta, "Munduko hizkuntzak, hizkuntzen mundua", hizkuntza, kultura eta kultur harremanei buruzko erakusketa erraldoiak eskaini zituen. Erakustoki horien artean, Eusko Jaurlaritzak euskarenean sustapenerako jarritakoa ere bazen.

Expolingua azokaren 19. edizioa, berriz, Berlinen izan zen, 2006ko azaroaren 17tik 19ra bitartean. Azokaren goiburua, oraingo honetan, hauxe: "Hizkuntzak mugitzeko tresnak dira", eta urteko gonbidatu berezia, berriz, Espainia. Hogei bat herrialdeetatik etorritako 150 erakusle izan ziren bertan, beren hizkuntza, kultura eta hezkuntza alorreko jardunetatik ateratako eskarmentua partekatzen. Azken urteetan bezala, Eusko Jaurlaritza bertan izan zen, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta HABEren eskutik.

Kataluniako Generalitatearekin eta Galiziako Xuntarekin elkarlana

2006ko uztailean Donostian izandako bileran, Eusko Jaurlaritzaren, Galiziako Xuntaren eta Kataluniako Generalitatearen hizkuntza politikarako ordezkariak hizkuntza politikaren alorrean elkarlana garatzeko marko orokorra eta metodologia finkatzeko borondatea adierazi zuten.

Horrela, 2006. urtean, hiru gobernuen artean elkarlanerako mahai iraunkorra osatu da. Mahaiak bi egiteko nagusi ditu: batetik, Europako Hizkuntza Txikien Gutunaren betetze-mailari buruzko txostenaren jarraipen bateratua egitea, eta, bestetik, 2007an hitzarmena lantzeko urratsak ematea.

15 ARGITALPENAK

Hizkuntza politika aurrera begira

Legegintzaldiaren hasieran aurkeztu zen dokumentu honetan aurkezten diren lan-ildoek datozen urteotan hizkuntza politikan jarraitu nahi den norabide nagusia erakusteko asmoa dute.

Euskararen Berripapera

Euskaraz zein gaztelaniaz argitara eman eta dohainik (14.000 harpidedun) zabaltzen den agerkari honek, hilero-hilero, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskararen gainean egindako jardueren berri ematen du.

Bidegileak bilduma

Euskararen alde aritutako norbanakoak, etxeakoak zein kanpokoak, ditu aztergai, haien biografia eta lanen berri emanez, argazki eta testu egokien bidez. 2006an lau karpeta argitaratu dira, launa pertsonari buruz, guztira hamasei bidegileren berri emanez: Elbira Zipitria, Frantzisko Lapitz, Jean Pierre Arbelbide, Peli Mar-


kiegi, Mari Karmen Alzueta, Eusebio Osa, Julita Berrojalbiz, Imanol Laspiur, Jon Gotzon Etxebarria, Gabriel Manterola, Migel Olasagarre "Aita Damaso Intzakoa", Matilde Zabalbeaskoa, Jose Olaizola, Gotzon Aulestia eta Jesus Guridi.

Hizkunea Soziolinguistikako Agerkari elektronikoa

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005eko udazkenean jarri zuen abian soziolinguistika alorreko gaiak jorratzen dituen aldizkari elektronikoa hau. Dagoeneko, *Hizkunearen* 11 ale kaleratu dira.

Literatura Unibertsala

Literatura Unibertsala bilduma munduko gainerako hizkuntzetan idatzitako literatur lanik onenetakoak euskaraz irakurgai jartzeko sortua da. Itzulpenaz gainera, liburuok sarreratxo bat daukate idazleari eta idazlanari buruz. EIZI Erekin batera lantzen da urtero berritzen den lankidetzahitzarmenaren bitartez.



HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZAREN AGERRALDI PUBLIKOAK

16

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako lantaldeko kideek hainbat gogoeta-saitan parte hartu dute jendaurrean, 2006an zehar, ekitaldi modu desberdinetan eta Euskal Herrian nahiz kanpoan. Hona hemen aipagarrienak:

- **Euskararen bilakaera eta egungo erronkak.** Leizaola Elkarte, Bilbo. 06.01.30.
- **Bermeoko Lan Munduko Mintegia.** Bermeoko Euskara Zerbitzua. Bermeo. 06.05.05.
- **Política lingüística y cultural del Gobierno Vasco.** Carhaix. 06.05.07.
- **Marketing lingüístico.** Facultad de Comunicación Blanquerna, Ramon Llull Unibertsitatea. Bartzelona. 06.05.25.
- **Euskararen Astea.** Zamudio. 06.05.25.
- **Ajuts a la premsa. Europan prentsari ematen zaizkion laguntzak.** Institut de la Comunicació. Universitat Autònoma, Bartzelona. 06.06.20.
- **Proyección internacional del eusker a y la cultura vasca.** Xornadas Mar por Medio. Dirección Xeral de Creación e Difusión Cultural da Consellería de Cultura. Galiziako Xunta. Ribadeo. 06.07.28.
- **EAEko hizkuntza politika.** EHUKo Uda Ikastaroak. Miramar Jauregia, Donostia. 06.09.07.
- **Elegune.** Azpeitiako Udala. 06.09.22.
- **Elhuyar 15. urteurrena.** Miramon Parke Teknologikoa, Donostia. 06.09.27.
- **Euskararen status juridikoa.** Nafarroako Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea. 06.10.04.
- **HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa (Ikasturtearen irekiera).** Asmoz Fundazioa. Eibar. 06.10.21.
- **La política lingüística en la CAV.** Corporación Nacional de Desarrollo Indígena. Ministerio de Planificación y Cooperación del Gobierno de Chile. Temuco, Txile. 06.10.24.
- **La política lingüística en la CAV.** Txileko Unibertsitatea. Santiago de Chile. 06.10.25.
- **IMH Mintegia.** IMH. Elgoibar. 06.10.26.
- **La política lingüística en la CAV.** Laurak bat (Euskal Etxea). Buenos Aires. 06.10.31.
- **MCC Jardunaldiak.** MCC. Arrasate-Mondragón. 06.11.09.
- **La política lingüística en la CAV.** Begoñako Andra Mari Magisteritza Unibertsitate Eskola, Bilbo. 06.11.23.